



KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOAK EGITEN DUEN EKONOMIA- ETA ARAUDI-KONTROLEKO TXOSTENA, ERAKUNDEEN JARDUERAN ETA KUDEAKETAN EUSKARAK DUEN GARAPEN-MAILA EBALUATZEKO, EGI AZTATZEKO ETA AITORTZEKO SISTEMA ARAUTZEN DITUEN DEKRETU-EGITASMOARI BURUZKOA

-Tramitagune- DNCG_DEC_1807/22_11

Urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak, III. tituluko IV. kapituluaren arautzen du ekonomia- eta arau-kontrola. Kontrol hori nahitaezkoa da, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak dagokion kontrol-txostena eginez gauzatzen da.

Arau hori, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren III. kapituluako 3. atalean eta Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuaren 4.a) artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, honako txosten hau ematen da.

TXOSTENA

I. XEDEA

Txosten honen xedea da goiburuan jasotako proiektuaren ekonomia- eta araudi-kontrola egitea. Proiektuaren testuaren arabera, Dekretuaren helburua euskararen kudeaketaren aitorza-sistema arautzea da, bere bitartez esparru sozioekonomiko pribatuko zein sektore publikoko erakundeen jardueran eta kudeaketan euskarak duen garapen-maila ebaluatu, egiaztatu eta aitortzeko.

II. AURREKARIAK ETA BIDALI TAKO DOKUMENTAZIOA

Eusko Jaurlaritzak beharrezkoa eta onuragarria ikusi du hizkuntzaren normalizazioa arlo sozioekonomikoaren baitan dauden esparru guztietan. Horren eredu, 2006an abian jarritako LanHitz programa markoa dugu, arlo sozioekonomikoan euskararen

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ

tef. 945 01 89 78 – Fax 945 01 90 20 – e-mail Hac-Oce@ej-gv.eus



erabilera eta presentzia areagotzekoa. Eusko Jaurlaritzak, LanHitz programa marko horren testuinguruan, Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria sortu zuen, lehendabizi Kulturako sailburuaren 2008ko martxoaren 5eko Aginduaren bidez, eta, ondoren, 2009ko martxoaren 3ko Bikain-Hizkuntza Konpromisoaren Zigilua eta Euskararen Kalitate Ziurtagiria arautu zituen 53/2009 Dekretuaren bitartez, "esparru sozioekonomikoan euskararen erabileraren, presentziaren eta hizkuntza-kudeaketaren normalizazio-maila egiaztatu eta aitortzeko xedez".

Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria sektore publikora berariaz zabaltzeko asmoz eta, bide batez, ebaluaketa eredua berraztertu eta eguneratzeko helburuarekin Bikain-Hizkuntza Konpromisoaren Zigilua eta Euskararen Kalitate ziurtagiria arautzen zituen, martxoaren 3ko, 53/2009 Dekretua indargabetu eta Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria arautzen zuen, maiatzaren 30eko, 162/2017 Dekretua eman zen.

Bikain ebaluazio-sistemaren muinean dago prozesuaren etengabeko berrikuspena eta antzemandako beharren arabera egokitzapena. Egokitzapenak egin ahal izateko dekretua aldatzeko prozeduraren eraginkortasuna hobetzeko, eta efizientziaren mesedetan, ezinbestekoa ikusi da prozedura malguagoa eraikitzea. Horrez gain, aurreko ebaluazio-prozeduretatik eratorritako berrikuntzak txertatzeko aukera zabaldu nahi da, eta era berean, ebaluazio- eta ziurtatze-aukerak hedatu eremu sozioekonomiko pribatuaren ezaugarrietara egokituz.

Testuinguru horretan, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak beharrezkotzat jo du erregelamendu-xedapen berri hau lantzeari ekitea. Horretarako, dagokion espedientea ireki du, eta nahitaezko izapide gisa agertzen da Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ekonomia- eta araudi-kontrolari buruzko txostena egitea.

Aurreko Dekretuarekin konparatuta, honako hauek dira aldaketa aipagarrienak:

- 162/2017 Dekretuan ezarritako BIKAIN-Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren egiaztapen-mailak berriak sortzeko aukera zabaldu.
- Eremu publikoaren berezitasunak kontuan hartu eta hobeto egokitzeko zaion prozedura eta agiri-sistema berezitua abian jarri.

- Ebaluazio-sistemaren kalitatearen etengabeko hobekuntza lortze aldera, gogobetetze-inkestak egin urtero ebaluazio-prozesuan inplikaturako guztien iritzia jasotzeko eta prozesu bera berrikusi eta beharren arabera egokitzeko.

- Bikain Ebaluatzaileen Kluba mantenduko bada ere, eremu sozioekonomiko pribatuak besterik ez du horren erabilera egingo. Eremu publikoko erakundeak ebaluatzeko beste bitarteko eta baliabide batzuk erabiliko ditu Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak.

- Euskararen Kudeaketaren Aitortza-sistemaren Jarraipen Batzordea osatuko da, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza eta Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzako kideekin.

Espedienteari honako hauek erantsi zaizkio: ekimenaren azterketa juridikoaren txostena, legezotasun-txostena eta memoria eta memoria osagarriak. Halaber, Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaleko Zuzendaritzaren txostena, Emakunderen txostena eta Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena ere eman dira, eta jendaurreko informazio- eta kontsulta-izapidetak egin dira.

III. DEKRETUAREN AZTERKETA

Bidalitako dokumentazioa aztertuta, uste da funtsean bat datorrela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42. eta 43. artikuluetako aurreikuspenekin, eta, horrekin batera, Bulego honek ekonomia- eta araudi-kontrolerako bere jarduketa gauzatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren 25.etik 27.era bitarteko artikuluetan aurreikusitako baldintzetan.

A) Prozedura eta izapidetzea

1) Bidalitako dokumentaziotik ondorioztatzen denez, aztergai dugun proiektua egiteko prozeduran arazoiz bete dira, gaurdaino, abenduaren 22ko 8/2003 Legeak xedapen orokorrak egiteko eskatzen dituen baldintzak (Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen xedapen iragankorraren arabera

aplikatzekoa). Hala ere, ez da sartu espedienteen 8/2003 Legearen 10.2. artikulua arautzen duen memoria laburra.

2) Sailaren txosten juridikotik ondorioztatzen da organo sustatzaileak eskumena duela goiburuan identifikatutako jarduerari ekiteko, bai eta haren bideragarritasun juridikoa ere.

B) Testua eta edukia

Aurkeztutako testuari dagokionez, txosten honen xedea ez da kontrol ekonomiko-normatibotik aldentzen diren gaien balorazioa egitea, are gehiago prozeduran zehar eduki juridikoko bi txosten egitea aurreikusten denean.

C) Antolaketa-eragina

Urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 43. artikulua ezartzen duenez, ekonomiaren eta arauen kontrolaren ondorioetarako, Bulego honetara bidaltzen den memoria ekonomikoak honako hauek jaso beharko ditu: organoa sortzeko beharraren edo egokitasunaren justifikazioa, erabilitako giza baliabideen aurreikuspena (ordainsariak, kostuak eta eragindako baliabide materialak deskribatuta), eta organoaren funtzionamenduaren kostuaren eta zerbitzuen errendimenduaren edo erabilgarritasunaren azterketa ekonomikoa, hala badagokio, lau urterako Plan Ekonomikoarekin batera.

Antolamenduaren ikuspegitik, Dekretuaren zirriborroaren 5., 6. eta 7. artikulua aipatu behar dira.

5. artikulua organo berri bat arautzen du, Jarraipen Batzordea. Hizkuntza politikaren arloan eskumena duen sailburuordearen ebazpen bidez izendatuko dira haren kideak. Ez memoria ekonomikoak, ez Sailaren aurrekontu-zerbitzuaren txostenak ez dute batzorde berri hori aipatzen, eta, beraz, espedienteak ez du betetzen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 43. artikuluan adierazitakoa. Alde horretatik, ez dago Batzordea sortzeko beharraren edo egokitasunaren inolako justifikaziorik, eta ez da aztertzen Batzordearen funtzionamenduaren balizko kostua; beraz, espedientea osatu egin behar da. Horri dagokionez, Bulego honek gogorarazten du dekretu-proiektuan ezarritako aurreikuspenak aplikatuz egiten diren jarduketak EAEko Aurrekontu Orokorren Legean ekitaldi bakoitzerako onartzen diren kredituetara

egokitu beharko direla, eta aurrekontu-lege horietan jaso behar direla aldez aurretik onartutako arauen aginduei eta aurreikuspenei ekonomikoki erantzuteko behar diren kredituak.

Bestalde, 6. artikulua Kontseilu Errektorea arautzen du. Horri dagokionez, txosten juridikoan Kontseiluko kideei buruz azaldutakoa errepikatzen da, orain arte hala zirenei eutsi nahi badiote; izan ere, badirudi guztiak mantentzen direla, UEMAKO idazkaria eta ordezkaria izan ezik. Funtzionamenduaren kostuari dagokionez, 6.11 artikulua aurreikusten du Kontseilu Errektoreko kideek ez dutela eskubiderik organo horretan parte hartzeagatik dietak edo gastuen konpentsazioak jasotzeko. Dena den, memoriak honela dio: “organoa osatzen duten kideak (...) ez dira beti elebidunak izaten. Horren ondorioz, sor daitezkeen gastuak honakoak dira: interpretazio- eta itzulpen-gastuak, bilerarako azpiegiturak, aditu baten kontratazioa...”. Gastuak zehaztu baino lehen, aipatu behar da, badirudiela gastuen justifikazio esklusiboa dela Kontseilu Errektoreko kideak ez direla beti elebidunak, baina, egia esan, askotariko gastuak aurreikusten dira, hala nola adituak kontratatzea, hizkuntza-gaiarekin zerikusirik ez duten gastuak.

Espedientearen memoriak 10.000 eurotan kuantifikatzen ditu Kontseilu Errektoreak eragindako gastuak, baina ez da justifikatzen kantitate horren arrazoizkotasuna (ez da ezagutzen aurreikusitako itzulpen-kopurua, ez da informaziorik ematen kontratatu beharreko adituei buruz, ezta kontratatuko diren moduari buruz ere). Beraz, informaziorik ez dagoenez, Bulego honek ezin du kreditu horren egokitasunari buruzko iritzirik eman.

Kredituaren nahikotasunari dagokionez, memoria ekonomikoak alegatzen du gastu horiek 2022ko ekitaldiko aurrekontuko aurrekontu-partida honekin ordainduko direla, eta partida horretan horretarako kreditua dagoela:

		2020/000867	HIZKUNTZA IKERKETA ETA KOORDINAZIOA ETA EUSKARA LAN MUNDUAN. FUNTZIONAMENDU GASTUAK / INVESTIGACIÓN Y COORDINACIÓN LINGÜÍSTICA Y EUSKERA EN EL MUNDO LABORAL. GASTOS DE FUNCIONAMIENTO		
1001123230	1.47113.24499	2020/000868	Bestelako zerbitzuak. Hizkuntza ikerketa eta Koordinazioa eta Euskara lan munduan / Otros servicios. Investigación y Coordinación lingüística y Euskera en el mundo laboral	20.000	Bilerak (3.000) Aintzat. (3.000) Konts. (10.000)

Bigarren memoria ekonomikoa sartu da 2023. urteko aurrekontu-proiektuaren datuekin. Bertan agertzen da partida hori ere bai:

10011232 30	1.47113.244 99	2020/0008 68	A	2	GE	X		Bestelako zerbitzuak. Hizkuntza Ikerketa eta Koordinazioa eta Euskara lan munduan / Otros servicios. Investigación y Coordinación lingüística y Euskera en el mundo laboral	20.000	
----------------	-------------------	-----------------	---	---	----	---	--	---	--------	--

Azkenik, 7. artikulua Bikain Ebaluatzaileen Kluba arautzen du, eta kideei dagokienez, bigarren xedapen iragankorrean aurreikusten da Dekretu berri hau indarrean sartu arte Klubeko kide izango direnak mantenduko direla.

Halaber, memoriak ezartzen du ebaluatzaileen klubak honako gastu hauek sortzen dituela: alde batetik, ebaluatzaileen prestakuntza-saioetatik eratorritako antolaketa-gastuak (gutxienez bi urtean). Bestetik, Klubeko ebaluatzaileek ebaluaketa-egunetan erakundeetara joan behar dutenetik eratorritakoak. Ekonomia eta Ogasun Sailaren bidez, aseguru-poliza bat egiten zaie egun horietarako, eta, horretarako, sail horri bidaltzen zaio informazio guztia. Azkenik, Bikain Ebaluatzaile Klubeko ebaluatzaileen borondatezko lana eskertzeko, Bikain bulego teknikoaren izenean opari bat bidaltzen zaiela ezartzen da. Opari horiek kostu ekonomikoa dute. Azken ohar horretatik ondoriozta daiteke ebaluatzaileek ez dutela dietarik edo bidaia-gasturik jasotzen beren funtzioak betetzeagatik. Hala ere, hala bada, beharrezkoa da dekretu-proiektuan horrela islatzea.

Klubaren gastuak 12.000 eurokoak dira, baina beste behin, espedientean ez da ezer esaten zenbateko horren arrazoizkotasunari buruz. Horretarako, Kontseilu Errektoreari buruz aurretik azaldutakoa errepikatzen da.

Kredituaren nahikotasunari dagokionez, memoria ekonomikoa alegatzen du gastu horiek 2022ko ekitaldiko aurrekontuko aurrekontu-partida honekin ordainduko direla, eta partida horretan horretarako kreditua dagoela:

1001123230	1.47113.24499	2019/002782	Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagina (entitate pribatuen euskara mailaren ziurtagina) / Bikain-Certificado de Calidad en la Gestión Lingüística (Certificación del nivel de euskera de las entidades privadas)	60.000	Kluba (12.000) Ekitaldia (48.000)
------------	---------------	-------------	---	--------	--------------------------------------

Memoria ekonomikoa berriaren arabera Bikain Ebaluatzaile Klubeko gastuak 15.000 eurokoak izango dira. Ez dira memoriari justifikatzen zenbatekoa handitzeko

arrazoiak, justifikazio hori argitu behar da. Dena den, memoria berriaren arabera gastu horiek ondorengo partida honekin ordainduko dira:

10011232 30	1.47113.244 99	2019/0027 82	A	2	GE	X	Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria (entitate pribatuen euskara mailaren ziurtagia) / Bikain-Certificado de Calidad en la Gestión Lingüística (Certificación del nivel de euskera de las entidades privadas)	60.000
----------------	-------------------	-----------------	---	---	----	---	---	--------

D) Ekonomia- eta aurrekontu-eragina

Atal honetan, proposamenak aurreikusitako diru-sarreretan eta gastuetan duen eraginarekin eta horri lotutako beste alderdi ekonomiko batzuekin lotura zuzenena duten gaiak jorratzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42. artikulua arabera, ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena egin ahal izateko, memoria bat bidali behar da, honako hauek jasoko dituen, besteak beste: arau indarrean jartzeak ekarriko dituen aurrekontu-gastuak eta -sarrerak; gastu horiek finantzatzeko moduak; xedapenaren aurrekariak eta justifikazioa; xedapena txertatuko den aurrekontu-programa ekonomikoa, helburuak, ekintzak eta adierazleak identifikatuta; arauaren aplikazioaren ebaluazio ekonomikoa eta soziala, eta proposatutako erregulazioaren ildo nagusiak eta oinarri juridikoak ezagutzeko behar diren datu, txosten eta azterlan guztiak. Azken batean, araua onartu aurreko hausnarketa-prozesuaren barruan, lortu nahi den erregulazioak dakarren eragin ekonomikoaren ebaluazio osoa egin behar da, gastu publikoan ekonomiaren eta eraginkortasunaren printzipioak betetzen direla bermatzeko. Eta arauak partikularrengan eta ekonomian oro har duen eragin ekonomikoa ere baloratu behar da, arrazoizkoa eta bideragarria dela bermatzeko.

Horrenbestez, memoria ekonomikoari eskatzen zaizkion edukiak Kontrol Ekonomikoko Bulego honetara bidalitako espedientean horri buruz dagoen dokumentazioarekin kontrastatu behar dira. Adierazi behar da Jarraipen Batzordearen, Kontseilu Errektorearen eta Ebaluatzaileen Klubaren ekonomia- eta aurrekontu-eragina aurreko atalean aztertu dela.

Gainera, proiektatutako dekretuak eragin ekonomikoa izango duela argi dagoen arren, espedienteko dokumentu guztiak ez dira koherenteak ildo horretan. Txosten juridikoaren V. atalak adierazten duenez, proposamenak ez du eraginik izango aurrekontuetan, ez gastuetan, ez Eusko Jaurlaritzaren diru-sarreretan, eta hori ez

dator bat gainerako espedientearekin. Horrelako kontraesanak saihestea gomendatzen da.

1) Gastuak:

Gastuari dagokionez, esan behar da aztertutako arau-proiektuak betebeharr ekonomikoak sortzen dizkiola Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, honako eremu hauetan:

EUSKARAREN KUDEAKETAREN AITORTZA-SISTEMA (gastuen aurreikuspena)		
EBALUAZIO- PROZESUARI DAGOZKIONAK	SEKTORE SOZIOEKONOMIKO PRIBATUA	
	(Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza)	
	Informazio-bilerak erakundeekin: antolakuntza- eta azpiegitura gastuak.	3.000€
	Bikain Ebaluatzaileen Klubaren kudeaketa: prestakuntza-saioak, aseguru-polizak eta oparitxoak.	12.000€
	Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskuratzeko prozesuaren kudeaketan laguntzeko eta aholkularitza emateko enpresa baten kontratazioa.	100.000€
	Agiri berrien kudeaketan laguntzeko eta aholkularitza emateko, dirulaguntza izenduna Bai Euskarari Elkarteari.	100.000€
	Lan eredugarri zein trakzio-lanak egin dituzten erakundeen lanari aintzatespena egiteko xedez, izaera bereziko aipamenak sortzeko antolakuntza- eta azpiegitura-gastuak.	3.000€
	SEKTORE PUBLIKOA	
	(Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza)	
	Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskuratzeko ebaluazio-prozesuaren kudeaketa burutzeko eta aholkularitza emateko enpresa baten kontratazioa.	121.000€
	Lan eredugarri zein trakzio-lanak egin dituzten erakundeen lanari aintzatespena egiteko xedez, izaera bereziko aipamenak sortzeko antolakuntza- eta azpiegitura-gastuak.	3.000€
	GASTU KOMUNAK	
Artezkari Kontseiluaren bilerak bideratzeko gastuak: interpretazio- eta itzulpen-gastuak, bilerarako azpiegiturak, aditu baten kontratazioa...	10.000€	
Ziurtagiri, agiri eta aipamen bereziak banatzeko ekitaldia: aretoa alokatzea, entitate ziurtagiridunak jasotzen dituzten orogarria eta diploma, ekitaldiaren antolaketa, lancha...	60.000€	

	Euskararen kudeaketaren aitortza-sistemaren zabalkunde eta gizarteratzeak ekarriko dituen gastuak: bilerak, mintegiak, prestakuntza-saioak, zabalkundea, merchandisinga.		15.000€
	Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza		15.000€
	Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza		30.000€
MARKAREN DISEINU ETA ESTILO-LIBURUARI DAGOZKIONAK	Marken diseinu eta egokitzapena, eta horren guztiaren berri emango duen markaren estilo-liburu berria osatzea.	Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza	15.000€
APLIKAZIO ETA EUSKARRI INFORMATIKOEI DAGOZKIENAK	Indarrean den Bikain aplikazioa aitortza-sistema berrira egokitzeko egokitzapen eta aldaketan kostu ekonomikoa.	Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza	
	Euskarri informatiko berri bat sortzea.	Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza	15.000€

Memoriaren arabera, laburbilduz, gastuak hauek dira:

Euskararen kudeaketaren aitortza-sistema						
Atalak	Sektore pribatua		Sektore publikoa		Komuna	
PROZESUAK (430.000 €)	Bilerak	3.000	Ebaluazioa	121.000	Kontseilua	10.000
	Kluba	12.000	Aintzatespena	3.000	Ekitaldia	48.000
	Kud. (prozesua)	100.000			Gizarteratzea	30.000
	Kud. (agiriak)	100.000				
	Aintzatespena	3.000				
MARKAK					Markak	15.000
INFORMATIKA					Euskarriak	30.000

Berriz ere esan behar da memoria gastuak kuantifikatzera mugatzen dela, eta ez duela justifikatzen egokitzapena, eta hori ez dela nahikoa.

Espedientearen memoriak aipatutako gastuetarako finantzaketa-iturriak identifikatzen ditu, 2022ko aurrekontuak aipatuz, baina ez du horiei buruzko datu kuantitatibo gehiagorik ematen, ezta egungo zuzkidura ekonomikoen mailan gerta daitezkeen aldaketei buruzko daturik ere. Beraz, suposatzen da diru-kopuru horiek nahikoak izango direla gastuei aurre egiteko eta etorkizunean gastu berriei erantzuteko.

Dena den, memoria ekonomiko berriak partida jakin batzuei esleitutako gastuak aldatzen ditu, azalpen gehiagorik eman gabe. Adibidez: erakundeekin egindako informazio-bileren gastuak 2.000 eurokoak dira orain (lehen 3.000 eurokoak ziren),

Bai Euskara erakundeari emandako diru-laguntza izenduna 40.000 eurora murrizten da (lehen 100.000 eurokoak), emate-ekitaldiari dagozkion gastuak 60.000 eurotik 30.000 eurora murrizten dira... Aldaketa horien zergatia ez da memorian azaltzen, eta horrek eta horrek espedientean desadostasunak egotea eragiten du.

Azken memoria ekonomikoan aipatutako gastuak 2023ko aurrekontu-proiektuko hainbat partidatan jasota daude, eta hortik ondorioztatzen da nahikoa kreditu dagoela dekretuaren jarduerak finantzatzeko. Dena den, espedientean aipatutako kontraesan horiek zuzendu behar dira, zein diren behin-betiko gastuak zehaztu eta arazoitzeko.

Horri dagokionez, behin eta berriz adierazi dugu dekretu-proiektuan ezarritako aurreikuspenak aplikatuz egiten diren jarduketak ekitaldi bakoitzerako onartzen diren kredituetara egokitu beharko direla.

2) Diru-sarrerak:

Espedienteko dokumentazioan ez dago ezer jasota dekretu-proiektutik erator daitezkeen diru-sarrereri buruz, eta, beraz, bulego honek ezin du horri buruzko iritzirik eman. Espedientea ildo horretatik osatu behar da.

3) Euskadiko Ogasun Nagusiaren berezko gaietan eta aurrekontu-araubidean duen eragina:

Ekarritako memoria ekonomikoetan ez da aipatzen xedapenak partikularrentzat eta, oro har, ekonomiarentzat izan dezakeen eragina. Espedientea ildo horretatik osatu behar da.

Aurreko guztia adierazi ondoren, txosten hau helarazi da, proiektatutako dekretuaren espedientean sar dadin, izapidetzen jarraitzeko.